

45.- PLATAFORMA

Kokapena: Mapa: 87-59

Diapositibak: 86 zk.

Koordenatuak: 30 521 947 E
47 62 582 N

Neurriak: 1,27 x 1,20 m.

Hormaren altuera: 95 cm

Ezaugarriak: Errekisterreta izeneko lekuan kokatuta, hormatxo edo hormigoizko plataforma, non burdinazko zutabe kabledun bat jartzen zuten, gerrako materiala mendiaren goialdera igotzeko erabiltzen zutena.

Pena Txikitaraino igotzen zuten. Handik ere, materiala Oketaren gailurraren inguruan zeuden lubaki ugarietara eramaten zuten. Bada beste hormigoizko plataforma bat, Pena Txikitako goialdetik hurbilago dagoena.